

Galdezka

Antton Izagirre

Duela egun batzuk Markelen eskaera jaso nuen postaz. Markel hamalau urteko gaztetxea da eta ikastolan eskatutako lan baterako nirekin elkarrizketa izatea eskatzen zidan. Denbora galdu gabe baietza eman eta elkarrizketarako hitzordua jarri genuen.

Eseri, grabagailua martxan jarri eta serio arraio bota zidan lehen galdera: «Zein uste duzu dela independentziarako biderik egokiena?». Estatu espainolak eta Estatu frantsesak herrien autodeterminazio eskubidea onartu beharko lukezela adierazi nion. Ondoren galdeketa egiteko eskubidea onartu, galdetu eta euskal herritar gehiengoak baietza ematea. Hori litzatekeela demokrazian bide-

rik egokiena, baina gaur-gaurkoz baldintza horiek betetzen ez direnez euskal lurraldeek independentziarako bidea egunerokotasunean lantzen jarraitu beharko luketela.

Nafarroa Euskadin txertatzea ala erabakitzeko eskubidea gauzatzea litzateke garrantzitsuagoa? Nafarroaren anexioa ez dela bidea jakinarazi nahi izan nion. Nafarroak eta Euskal Autonomi Erkidegoak (“Euskadi” bere hitzetan) beren bidea egin behar dutela eta erabakitzeko eskubidea bitarteko, noizbait Ipar Euskal Herriarekin batera independentziarako hautua egitea litzatekeela desiragarria, inoren inposiziorik gabe eta eremu politiko bakoitzaren erritmoa errespetatuz. Zergatik uste duzu Estatu espainolak ez

duela erreferendumik onartzen? Ba noizbait galdeketa hori independentistak irabaztearen beldur delako.

Independentziaren ondorengo estatuz ekonomikoaz eta Estatu independenteak Europan izango lukeen lekuaz galdetuz jarraitu zuen elkarrizketak.

Amaitu eta gero, Arnaldok, herri honek independentzia bidean duen geldotasunaz esandakoak etorri zitzaizkidan gogora. Hala ere, gaztetxoek independentzia lortzeaz zalantzarik ez dutela eta normaltasun osoz beren pentsamoldea garai berri horiek begiz joak dituztelakoa amaitu genuen. Badago itxaropenerako tokirik. Etorkizuna Markel bezalako horiena guztiena izango da. Har dezatela lekukoa. •

Maiatzaren Lehenetik Gure Esku Dagora

Andoni Egia

Edo eskubide sozial eta ekonomikoak aldarrikatzeko egunetik, eskubide zibil eta politikoak aldarrikatzeko egunera. Edo justizia sozialetik, autodeterminazioa aldarrikatzeko egunera. Ez da inoiz nahikoa izan eskubideak aldarrikatzea, gauzatu egin behar izan dira. Legitimitatetik legalitatera dagoen kalea igaro behar izan da, askotan desobedientzia izeneko kaletik igaroz. Pentsa dezagun Rosa Parksen, autobusean bere eserlekua zuri bati utzi ez zion lehenengo pertsona beltzean. Emakumea, beltza eta langilea, portzierto.

Euskal Herria orain arte, plano politiko, kultural, linguistiko eta identitarioan aldarrikatu eta eraiki da; askotan, desobedientziaren kaletik. Orain plano materialan eraikitzea falta da, hau da, plano

sozioekonomiko eta territorialean. Seguruenik ere, batzuetan, desobedientzia izeneko kaletik pasatuz.

Egun subiranotasuna pluralean idazten da, eta estatua ez da nahikoa subiranotasun horiek guztiak berreskuratzeko –gogora gaitzezen Greziaz–; eta estatuak ere ez dira ezinbestekoak subiranotasun horietako batzuk eskuratzen hasteko. Estatu subiranoa eratu nahi badugu, has gaitzezen subiranotasun horietako batzuk berreskuratzen, desobedientzia izeneko kaletik bada ere, edo kale horretatik delako, hain zuzen ere.

Egun Gure Esku Dago herri eta eskualdeen subiranotasun energetikoan pausu sendo eta atzeraezinak ematen hastea. Gutako bakoitza, Goiener bezalako kooperatibetan bazkide eginez.

Egun Gure Esku Dago subiranotasun finantzarioa eraikitzen hastea. Nomina FIA-REN kobratu eta aurrezkiak Coop57 bezalako finantza kooperatibetan sartuz, eta gure proiektu ekonomikoentzako maileguak kooperatiba horiei eskatuz.

Egun Gure Esku Dago elikadura subiranotasuna eraikitzen hastea, herri edo auzoko kontsumo kooperatiban, edo Herri Goran erositako produktuen bidez elikatuz. Egun Gure Esku Dago eskubide sozial eta ekonomikoak aldarrikatzetik, gauzatzen hastera igarotzea, bidean, autodeterminazio eskubidea gauzatzen hasteko ezinbesteko subiranotasunak berreskuratu bitartean.

Eskubideak gauzatzea, subiranoa izatea baita. Baliabideak dauzkagu. Erabil ditzagun. Desobedi diezaiegun. •